

ESKUZ ESKU, ATEZ ATE

Maialen Lujanbio, Hernanin 2010-03-06an irakurritako “Eskuak zenbat” dezaken manifestuan:

“Eskuak zenbat lezaken? Keinu bat... mugimendu txiki bat baino ez badu...? Eskuak, ohitura bere egina du, bere keinua, betikoa eta betiketua. Ohitura barruan gogortu zaio. Kosta egiten da aldatzea. Beldurra ematen du aldaketak. Ohitura segurtasuna da eta heldulekua. Baina eskuak mudatu dezake keinua, ahalegin txiki bat baino ez da beretzat. Dena batean pilatzen zuena berezi dezake hainbatetan. Eta egunean-egunean atarian utzi.

Berritasunaren ikara, berritasunaren indarra bihurtu dezake eskuak. Ausartu egin behar du, froga egin; moldatu, hobetzeko”.

Paul Palmer “Getting to Zero Waste” (Zero Zaborreruntz) liburuan:

“Jende gehienak okerreko galderari erantzuten dio hondakinen kontuan. Galdetzen du 'zer egin behar dut hondakina berriro usatu ahal izateko?'. Baina galdera ona da: 'Zer aldatu behar dut zaborrik ez sortzeko?’”.

Paul Connet “Zero Waste: a Key Move towards a Sustainable Society” (Zero Zabor: urrats funtsezkoa gizarte iraunkorrerantz) liburuan.

“Zero Zaborrek ezetz esaten die errauskailuei, zabortegi erraldoiei, gizarte xahutzaileari... eta baietz gizarte jasangariari. Idealista dirudi, baina egia bihurtu dezakegu. Ez dugu espero behar zero zaborretara iristea datorren urtean, baina aurreratu dezakegu herri batzuk 2020rako horretatik oso hurbil egongo direla”.



Nazioarteko Jardunaldiak

Atez Ateko hondakin bilketa • Zero Zaborrerako bidean



Antolatzaileak:

Hernani: Hernanin Zero Zabor + Hernaniko Udala
Oiartzun: Oiartzungo Agenda21 + Oiartzungo Udala
Urnieta: Arnasa + Urnieta Udala
Usurbil: Jarraipen Batzordea + Usurbilgo Udala
San Marko Mankomunitatea



San Marko Mankomunitateko kide diren Hernanin, Oiartzunen, Urnietan eta Usurbilen hondakinen inguruan lanean ari diren boluntario taldeek elkarlanean antolatu dituzte “Atez Ateko hondakin bilketa, Zero Zaborrerako bidean” jardunaldiok, lau herrietako udalekin eta San Markorekin batera.

Jardunaldiokin oihartzun zabalagoa eman nahi zaio Gipuzkoa eta Euskal Herri mailan gure artean interes handia piztu duen hondakinen gaikako kudeaketa sistemari. Aldi berean Zero Zabor (Zero Waste) eredurako bidean munduko beste leku askotan planteatzen diren urratsak ezagutarazi nahi dira hemen.

Herri hondakinen gaikako bilketa mundu osoan zabaldua egonik, gure herrietara egokien aplikatzeko ereduak Katalunian, Baileareetan eta Italian aurkitu dituzte udal agintariek eta teknikariek. Herrialde haietan, bestalde, oso aurreratuta daude Atez Ateko bilketaren emaitzak hobetzeko urratsetan, hondakinak murriztean bezala kosteak era zuzenagoan banatzean eta beste.

Jardunaldiotara gonbidatuta daude Gipuzkoako eta oro har Euskal Herri osoko udal hautetsi eta teknikariak, ingurumenaren aldeko mugimenduetan lanean ari diren talde eta erakundeak, eta hondakinen kudeaketa burutsuago baten kezka duten herritar guztiak.

Oharrak:

- Jardunaldietarako gomendatzen da aurrez izena ematea hemen: www.hernaniatezate.net, <http://atezate.oiartzun.org> edo www.usurbil.net/atezate
- Hitzaldi guztiak gaztelaniaz izango dira eta dohainik.



JARDUNALDIETAKO HIZLARIAK:

- **Assumpta Boba Caballé:** Associació de Municipis Catalans per á la Recollida Porta a Porta (AMCRPP) elkarteko zuzendaritzakoa, Argentonako zinegotzia.
- **Roberto Cavallo:** Mikrobiologoa, 15 urtez udaletan hondakinen bilketa selektiboan lanean ari den ERICA kooperatibako kidea, Zero Waste ideiarenean teorikoetakoa. Italiako Alba-Cuneon bizi da.
- **Rossano Ercolini:** Zero Waste mugimenduko kide den Ambiente Futuro elkarteko kidea. Txingudiko errauste plantaren kontrako kanpaina barruan GAIA erakundeak egin zuen biltzarrean hemen izana da 2007an. Italiako Capannorin bizi da.
- **Ignasi Puig Ventosa:** Ingeniaria. ENT Environment-eko kidea, hondakinen gaikako bilketen azterketa, antolaketa eta hobekuntzan aditua.
- **Josep Maria Tost Borrás:** Associació de Municipis Catalans per á la Recollida Porta a Porta elkarteko lehendakaria. Riudecanyes-ko alkatea.

EGITARUA

Ostirala 26, ilunabarreko 19:30ean, hitzaldiak: “Hondakinen Atez Ateko bilketa, esperientziak eta etorkizuneko erronkak”.

Hernanin (Sandiusterrin): Ignasi Puig Ventosa.
Oiartzunen (Pleno aretoan): Josep Maria Tost Borrás.
Urnietan (Lekaion): Assumpta Boba Caballé.
Usurbilen (Sutegin): Roberto Cavallo.

Larunbata 27, Hernanin (Sandiusterrin) goizeko 09:30etik 13:30era, hitzaldiak eta mahaingurua: “Hondakinen Atez Ateko bilketatik Zero Zaborreruntz”.

Parte hartzaileak: Assumpta Boba Caballé, Roberto Cavallo, Rossano Ercolini eta Josep Maria Tost.

Igandea 28, Usurbilen goiz osoan: Atez Ateko bilketaren urteurren festa.